NOAUA ASTEKARIA - XXVII. URTEA - USURBIL - **NOAUA.EUS 1.012** 2024-11-22 TOKIKOM

# noaua

## URTEKO AZOKARIK GOZOENA

Igande honetan ospatuko da Erle Eguna / 12-13

ARGAZKIA: NOAUA

NOAUA

**Igande honetan, 'Usurbil 58' dokumentalaren estreinaldia** / 06

DYA

**"DYAko boluntarioek ondo jakin dute Valentziako egoerara egokitzen"** / 08

MARIO PEREZ

**Mario Perez Merino urpekari gisa ari da lanean Formenteran** / 18

NOAUA

**Biodonostiaren txostenarekin kezkatuta, bilera deitu dute Sutegin** / 20




## USURBIL S8 Dokumentalaren aurkezpena

2023ko udazkenean, Usurbilgo irudi zirraragarri batzuk topatu genituen Euskadiko Filmategian. Juan Illarramendik filmaturiko irudi eder hauek ordea, akats bat dute. Soinua falta dute. Mutuak dira. Ahotsik gabekoak izanik ere, gutaz ari dira. Gure herriaz, gure ohiturez. Garai bateko Usurbil irudikatzen dute.

Irudietako soinu falta ordezkatzeko, adin bat duten herritarrak gonbidatu genituen Sutegira. Garai hartako Usurbil eta garai hartako usurbildarrak ezagutu zituztenak. Eurek eskaini dizkiguten azalpenekin osatu dugu dokumental honen soinu banda.

**Noiz:** Azaroak 24, Igandea 17:30etan
**Non:** Sutegi auditorioan
**Sarrerak:** doan

Usurbilgo Udala

noaua

# Indarkeria matxistaren biktimen arretarako protokoloa eguneratuko da

Indarkeria matxistaren biktimen arretarako eta erreparaziorako erakundeen arteko koordinaziorako protokoloa eguneratzeari ekin dio udalak. "Udaleko Parekidetasun sailak, Gizarte Zerbitzuek, Udaltzaingoak eta ordezkari politikoez gain, herriko anbulatorioak, Osakidetzak eta Ertzaintzak ere parte hartuko dute lanean, Sortzen aholkularitza zerbitzuak lagunduta. Gainera, herriko zenbait eragile ere gonbidatu dituzte bertan parte hartzera, batik bat, mugimendu feministaren eta hezkuntza komunitatea", berri eman dute Udaletik.

Urrian ekin zioten lanketa prozesuari. Bost saio egingo dituzte. "Lehenengoan, elkar ezagutu eta erakunde bakoitzak biktimen arretarako zein baliabide dituen eta nola artatzen dituzten azaldu zuten. Gainerako laurak hausnarketa saioak izango dira".

Azkenik, erantzun politiko-instituzionala landuko dutela diote udal iturriek: "udalbatzako hautetsi guztiekin hitzordua jarri dugu, abendurako".

Udala Osakidetzarekin, Ertzaintzarekin eta herriko erakundeekin ari da lanean.

## Garbigune mugikorra, Kalezarren

Azaroaren 21etik aurrera, garbigune mugikorra Kalezarren izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Azaroaren 28an osteguna, garbigune mugikorra Usurbilgo erdigunera eramango dute.

## 1947an jaiotakoak azaroaren 30an batuko dira

1947. urtean jaiotakoek azaroaren 30ean ospatuko dute kinto bazkaria.

Artzabal jatetxean egingo dute ospakizuna eta interesa duten guztiek bi telefono zenbaki hauetako batera deitu beharko dute, izena emateko:

- 678 368 980 (Pili).
- 637 98 84 14 (Ana).

## 1972ko kintoen bazkarian parte hartzeko epea, ixtear

1972ko kintoen bazkaria azaroaren 30ean ospatuko da, Maykar jatetxean. 14:30ean elkartuko dira jatetxean bertan. Izena emateko, 50 euro sartu beharko dira ES44 3008 0259 11 5319017926 kontu zenbakian, norberaren izen-abizenak jarrita. Azken eguna azaroaren 22a izango da.

## "Goazen kalera" ibilaldi osasuntsua, Usurbilgo erdigunean

Asteartero, Usurbilgo herri eta auzoetan paseotxo osasuntsuak egiteko aukera dago. Amaieran, Lanbide Heziketako ikasleek eginiko hamaiketakoa banatzen dute parte hartzaileen artean. Azaroaren 26an Usurbilgo erdigunean egingo da. 10:30ean batuko dira, frontoian.

noaua
TOKIKOM

**Argitaratzailea:** Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria**: Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:** Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo, Imanol Ubeda.
**Diseinua:** Goiena.
**Publizitate arduraduna:** Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
**Banatzaileak:** Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
**Lege Gordailua:** SS-668-96.
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.
**Imprimategia:** Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
**Harremanetarako:** erredakzioa@noaua.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia

Usurbilgo Udala

ALAZNE ARRUTI BENGOETXEA

# Urak dakarrena

"Naturari mugak ezartzen dizkionak, bueltan jaso beharko du naturak dakarrena". ARGAZKIA: DYA GIPUZKOA.

Urak dakarrena, urak omen daroa. Lurrak emandakoa, lurrean omen da geratzen. Eta gu hemen omen gaude, beti gu hemen. Hala dio Benito Lertxundiren ahots gazteak 1969 kantuan. Baina naturari mugak ezartzen dizkionak, bueltan jaso beharko du naturak dakarrena. Eta horixe da Valentziako irudi gordinek agerian utzi dutena.

Sentitzen dut honen inguruan irakurri nahi ez baduzu. Nik ere egiaz, ez nuen honetaz hitz egin nahi. Nire gogo eta pentsamenduak, blokeatu samar egon dira, egoera distantziatik aztertu nahian. Izan ere gu, hemen gaude, gure etxeen lehorrean.

Tarte hau, ordea, ez nuke irakurketa pozoitsu edota astunegi bat egiteko baliatu nahi. Erabaki okerrak, hartu gabeko neurriak... iragana dira dagoeneko, eta oldartutako kaleek nahikoa esan dute horren inguruan. Gaurkoan lupa beste zerbaitetan jarri nahi nuke.

Ikusi duzue Euskal Herriko zein Espainiar estatuko kostaldearen bilakaera azken hamarkadetan? Zenbait, klima aldaketa turismoarentzat mesedegarria izaten ari dela esatera ausartzen ari da, tendentzia horri helduaz. Antza, bataz besteko tenperaturaren igoerari, bortxaz bada ere alde ona atera nahi diote. Baina gure basakeriak, zeri egiten dio mesede? Gure lurraren metro karratu gehienak, ikuspegi kapitalista eta etekin ekonomiko handienen espekulaziora bideratzea norentzat da mesedegarri?

**"GURE LURRAREN METRO KARRATU GEHIENAK, IKUSPEGI KAPITALISTA ETA ETEKIN EKONOMIKO HANDIENEN ESPEKULAZIORA BIDERATZEA NORENTZAT DA MESEDEGARRI?"**

Eraikuntza proiektu handi eta andanak onartu izan dira landa gune, ibai eta itsasoei espazio kentzeko beldurrik gabe. Eta orain, egoerari aurre egin eta beharrezko guneak naturari itzultzeko unea heldu dela dirudi. Urak zer ekarri eta zer eramango duen erabakitzea dagokigu.

## Gabonetako sukaldaritza tailerra

Santuenea Kultur Elkarteak antolatu du tailer hau azaroaren 30erako, 16:00-19:00 artean, Santuenea 12an. "Eguberrietako aperitiboak eta hasierakoak" sukaldatuko dituzte.

**Bazkideek, 5 euro**

Izena 5 euroren truke eman ahalko dute bazkideek, 8 euroren truke bazkide ez direnek, santueneake@gmail.com helbidean edo 621 095 644 telefono zenbakian.

## Sareren mobilizazioa

Hileroko azken ostiraletako elkarretaratzea ate joka da. Sarek deitutako hurrengo mobilizazioa azaroaren 29an izango da, iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## Zuberoako otarrak eskatzeko azken egunak

Hiru dituzue aukeran:

• Pettarra (50 euro):
Ahate gibel berrosatua, eztia, ardi gazta kiloa, bixkotx gatzatuak, pastak.

• Arbaila (57 euro):
Eztia, bixkotx artisanalak, bi gazta zati, bixkotx gazituak, erreximenta, tisanak, pastak.

• Basabürüa (68 euro):
Xerri patea, bixkotx artisanalak, ardi gazta kg., xahalki axoa, lukainka idorra, pastak.

Eskaerak NOAUA! bidez nahiz ikaskoli.eus atarian bidera ditzakezue.

943 361182
EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL

txirriStra
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

# 650 Usurbil Bizi otarrak hornitzeko garaia

Usurbilgo ekoizleek nahiz sortzaileek azaroaren 24ra arteko epea dute eskaintzak egiteko.

Herriko ekoizleek nahiz sortzaileek orain dute izen-emateko garaia.

**Parte hartzeko baldintzak**

a) Kultura eta sormen industriako jardueretarako: Usurbilen erroldatutako herritarra edo elkartea izatea, eskaerak egiteko epea zabaldutako lehen egunean (2024ko azaroak 14). Eskainitako produktuaren egilea edo autorea izatea. Taldean egindako lanak badira, taldekideen %33k, gutxienez, Usurbilen erroldatua egon behar du.

Azken 5 urteetan merkaturatutako produktua izatea (deialdia zabaldutako egunetik kontatzen hasita).

Kultura eta sormenaren industriako ondorengo jarduera-adarren bateko eragilea izatea: musika, literatura, arte eszenikoak, ikusmen-arteak, bestelako kultur diziplinetako eragileak, moda diseinatzaileak eta sormen industriako bestelako eragileak.

b) Lehen sektorea, ostalaritza eta elikaduraren industriako ekoizleentzat:

-Lehen sektorea: nekazaritza edota abeltzaintzaren sektoreko jarduera bat izan eta ekoizpen-ustiategia Usurbilen daukatenak.

-Elikadura-industriako ekoizleak: Usurbilgo lursailetan kokatutako nekazaritza edota abeltzaintzako ekoizpen propioa duten sagardogileak eta elikadura-industriako bestelako ekoizleak.

-Elikadura-produktuak eskaintzen dituzten ekoizleek, jakien osasun erregistroan inskribatuta egon beharko dute edo osasun-baimena izan, hala dagokien kasuan.

**Egutegia**

• Azaroak 14-24: ekoizleen izen-ematea lotura honetan: https://labur.eus/zWLIX

• Azaroak 25-26: ekoizleek eginiko eskaintzak eskatutako baldintzak betetzen diren aztertuko da. Egiaztapena egin-da, egindako eskaintzaren onarpena bidaliko zaie ekoizleei. Jakinarazpen horretan eskainitako produktuak non eta noiz entregatu behar diren ere zehaztuko da.

• Abenduak 1, Hurbilagoren Udazkeneko Azoka:

-11:00-14:30 Azoka: Gaztainak eta sagardoa doan azokan erosketa bat eginda.

-Gonbidatuez gain, Usurbilgo parte hartzaileak: Lizardi liburudenda, Sleepy Mimosa, Ione Iruretagoiena, Xükâ eskuz egina, Ameba, Zaparra, Ixabel Agirresarobe Arzallus.

-11:30-14:30 Pultsera tailerra, Ziortza Gazte Elkartearen eskutik.

-13:00 650 Usurbil Bizi otarraren aurkezpena Hurbilagoren Udazkeneko Azokan. Otarraren erakusmahai bat jarriko da.

• Abenduak 2-28: Gaboneta-ko otarren zozketan parte hartzeko txartelak eskuratzeko aukera, herriko saltokietan eginiko erosketen truke.

• Abenduak 28: Otarren zozketa saltokietan.

• Abenduak 29: 13:00 Otarren entrega Usurbilgo frontoian.

**Informazio gehiago:**
gertuago@gertuago.eus
652 085 811.

## IKA-MIKA

### Usurbil KE-ko zuzendaritza errelebo beharrean!

**USURBIL KE**

Usurbil K.E.n zuzendaritzako kideak aldatzeko garaia iritsi da. Gaur egun indarrean dagoen taldeak beste urte baterako konpromezua hartua duenez, erreleboa prestatzen hasteko momentua iritsi da. Deialdi hau klubeko jokalarien gurasoei, jokalariei eta eskubaloi zaleei luzatu nahi dizuegu. Aurtengo denboraldia baliatu nahiko genuke erreleboa prestatzen hasteko, kide berriak datorren denboraldian jada prest egon daitezen lanean hasteko!

Anima zaitezte!

Harremanetarako:
usurbilkirolelkartea@gmail.com

## IKA-MIKA

### Usurbilgo Udalari eta alkateari eskerrik asko!

**BIZIPOZA ELKARTEA**

Gure esker ona adierazi nahi diogu Usurbilgo Udalari eta herriko alkate den Agurtzane Solabarrietari urtez urte gure jardunaldiak burutu ahal izateko eskaintzen dizkiguten laguntza eta babesagatik. Aurtengoan " Bizipozatik arrazakeria deseraikitzen" gaiaz aritu gara hizketan hamarnaka elkarte, hezitzaile eta boluntarioak Sutegi Aretoan… bizipenak, esperientziak eta ikuspuntu ezberdinak partekatuz. Denona eta denontzat izango den Euskal Herri eta mundu baten alde ari gara lanean, herritarren zaintza erdigunera ekarriz.

Bizipoza irabazi asmorik gabeko gizartegintza egitasmoa da: izaera bereziko gaiak lantzen dituzten haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du xede, eta haien errealitateaz eta balioez informatzea eta sensibilizatzea. Eskerrik asko Usurbil!

# 'Usurbil 58' dokumentalaren estreinaldia

Ixabel Agirresarobek gidatu eta Luis Jambrinak zuzendu duen ikusentzunezkoa igande honetan ikus ahal izango dugu. Sutegiko proiekzioa 17:30ean hasiko da.

Gasolindegi bat zegoen Salbatore elizaren atari nagusian.

Adin bat dutenentzat ezagunak izango dira 'Usurbil 58' dokumentalean agertzen diren hainbat kontu. 1950eko hamarkadaren ondoren jaio zirenei ordea, seguru asko ezezaguna egingo zaiela Kale Nagusiko gasolindegia, Salbatore elizaren atarian zegoena. "Gu jaiotzerako hor zegoen gasolindegia", Asintxio Pagolak aitortzen duenez.

Jabier Pikabeak ere gogoan du orduko gasolina-hornigailua. "Luzaroan egon zen hor eta zerbitzu ikaragarria egin zuen garai hartan. Michelingo jendearentzat, bereziki".

Asintxiok dokumentalean azaltzen duen moduan, sute bat ere izan zen gasolindegian eta ikusgarria izan omen zen.

### Hitzaren garrantzia

Aurreko asteko erreportajean aipatu genuen bezala, mutuak dira irudiak. Juan Illarramendik Super8 batekin grabatu zituen irudi haiek soinurik gabe iritsi ziren Euskadiko Filmategira. Soinu falta, adindu kuadrilla baten adierazpenekin osatu dugu. Asintxio Pagola, Jabier Pikabea, Lurdes Urkia, Manuel Goenaga, Arantxa Alkorta, Kinttin Segurola, Arantzazu Aranburu eta Koro Iribarren ekarpenei esker ezagutu ditugu irudiek islatzen dituzten situazioak eta herritarrak.

### Lurdes Urkia: "Hara non nagoen!"

Juan Illarramendik 50eko hamarkadan erretratatutako irudietan jai giroko pasarteak dira nagusi.

Neska dantzari kuadrilla bat agertuko orduko, Lurdes Urkiak azkar asko aurkitu zuen bere burua: "Hara non nagoen! Izkina hartan. Ni txikienetakoa nintzenez, beti aurrean dantzatzen nuen. Orain txikia naiz, eta orduan ere bai!". "Baina txiki handia, Lurdes", Arantxa Alkortak abegikor erantzun.

### "Urte hartan gobernadore zibila etorri zen"

Asintxio Pagolari esker, herritar asko identifikatu ahal izan genituen. Dantzarien kasuan, Koro Iribarrek berehala ezagutu zituen elizatik udaletxerako bidean, kalejiran zihoazen dantzariak: "Hau Joxe Luis Muguruza da, beste hori Mikel Urkia, eta atzean Joxe Antonio Altuna, Joxemari Soroa eta Luis Mari Begiristain".

Eta dantzarien atzetik, 'autoridadea'. Lurdes Urkiak gogoan du "Santixabel batzuetan gobernadore zibila etorri zela, orduantxe izango zen". Hauek eta beste hamaika kontu jaso ditugu 'Usurbil 58' dokumental zirraragarrian.

### 'Usurbil 58' dokumentalaren aurkezpena Sutegin

**Azaroak 24 igandea**

- Ordua: 17:30.
- Sarrera: doan.
- Oharra: Usurbilgo Udalaren Sormen Bekarekin lagundutako lana.

Aizkolariak frontoitik gertu, ikusleak Dema plazan.

Patriko terrazatik, elizatik atera berri direnei begira.

Herriko sarrerak, Kale Nagusiaren hasierak, zerikusi gutxi du gaurkoarekin.

Paco Udabe, Garbi Alai kantu taldearen karroza gidatzen.

Trikitilaria eta dantzariak, jo eta fuego, Etxebeste kalean.

Dantzariak Kale Nagusian, udaletxera bidean, autoritateei bidea zabalduz.



Garai hartan sonatuak izaten ziren Usurbil eta Aginagaren arteko sokatira saioak.

Dantzari txiki hauek 70 urteren bueltan ibiliko dira orain.

DYAkoak bezala, Gipuzkoako suhiltzaileak eta udaltzainak ere Valentzian izan dira, hondamendiari aurre egiten.

# "Horrelako hondamendietan lan egitea ez da erraza. Ez han, ezta hemen ere"

**MAIDER MAKAZAGA** DYA GIPUZKOAKO GERENTEA

DYAko boluntario talde bat Valentzian izan da lanean. Maider Makazagak adierazi digunez, "muturreko egoerak dira eta gauzak ondo egin nahi badira Koordinatzaileak burua hotz izan behar du. Oso erraza izan daiteke-eta bertako ezbeharra ikusirik inpultsiboki jokatzea".

**Valentziako hondamendiari aurre egiteko, Gipuzkoako DYAko boluntario talde bat joan zen aurreko astean Aldaya herrira. DYAko kideen lana zertan oinarritu da?**

Lehen taldea logistikakoa izan zen eta hauek igande goizean atera ziren baina nora joan behar zuten jakin gabe. Eta bidean zeudela jakin genuen Aldayara joan behar zutela. Lehen talde honen lana bertara joan eta ospitale gisa erabiltzen ditugun karpak lotarako leku bihurtzea izan zen. Eta astelehen goizean atera zen beste taldea, lantaldea, nolabait esatearren.

Gipuzkoatik joandako taldea 10 boluntario eta 4 ibilgailuz osatu da. Boluntarioen artean erizainak, osasun teknikariak, erreskateko teknikariak eta logistikakoak zeuden. Eta ibilgailuei dagokionean berriz, lur-orotariko 2 anbulantzia, erreskatekoa eta logistikakoa bidali genituen. Behin Aldayara iristean, beste lekuetako DYAko kideekin bat egin zuten, eta baita suhiltzaile eta abarrekin ere.

Burutu duten lana bitan banatu dela esan daiteke: batetik, materiala banatzen (musukoak, mahaiak...), ingurunea garbitzen... Ibili dira. Eta bestetik, anbulantziekin Valentziako larrialdietako sarea indartzen ibili ziren, hau da, larrialdiak artatzen.

**Han sortutako emergentzia-mahai batek eskatuta joan zineten ala zuek izan al zineten zuen burua eskaini zenutenak?**

Hondamendiaren egunean, gauean, hainbat momentutan esnatuta ibili nintzen eta irratiz gertatzen ari zenaren berri entzuten egon nintzen. Aitortuko dut barruak nahastu zitzaizkidala entzundakoak entzunda, beste askori bezala. Goizean DYAko zuzendaritzako kideen artean komentatu genuen ea zerbait egin ote genezakeen. Baina argi genuen gure kabuz eta edozein modutara ezin genuela joan. Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarekin jarri ginen harremanetan jakiteko ea eurek zerbait bidaltzeko asmorik ote zuten, eta gure baliabideak eskaini genizkien. Aipatu ziguten baietz, asmo horretan zebiltzala eta Valentziako gobernuari laguntza luzatu zietela eta haien erantzunaren zain zeudela. Eta zerbait jakiten zutenean esango zigutela gu ere aktibatzeko. Horrela izanik, aktibazio horren zain gelditu ginen baina gure jendea eta baliabideak jada prest genituen. Eta ostegunean, arratsaldeko zazpiretan jakin genuen Valentziako Gobernuak momentuz ez joateko esan zuela nahiz eta izugarri eskertzen zuen eskaintza. Momentu hau nahiko kritikoa izan zen, egia esan, gure jendeak ez baitzuen ulertzen nolatan uko egiten zitzaion laguntza eskaintza horri ikusirik egoera nolakoa zen. Baina ezin genuen itsu-itsuan joan, barruak hala eskatzen bazuen ere.

Eta ondoren, larunbatean aktibatu gintuzten iganderako, behin Valentziako gobernuaren baimena jaso ondoren.

**"HORRELAKOAK GERTATZEN DIRENEAN, LEHEN UNEETAN NORMALA DA KAOSA EGOTEA"**

**Eta horrelakoetan, erraza da zuen boluntarioen lana hemendik koordinatzea?**

Horrelako hondamendiak ematen direnean lana ez da erraza ez han, ezta hemen ere.

Lehen aipatu dudan moduan, ezin da edozein modutara joan, aldez aurretik dena ondo lotu behar da; joan-etorria, lotarako lekua, otorduak, beharrezko materiala, aseguruak, ibilgailuak…Gauza asko dira. Eta horretaz gain, joaten direnen funtzioek ere zehaztuak egon behar dute, batez ere taldea koordinatuko duenarenak.

⟶ Muturreko egoerak dira eta gauzak ondo egin nahi badira, Koordinatzaileak burua hotz izan behar du, oso erraza izan baitaiteke bertako ezbeharra ikusirik inpultsiboki jokatzea. Eta horrelakoetan ondo etortzen da handik kanpo dagoen baten ikuspegia izatea. Nik egunero hitz egiten nuen bertaratutako Koordinatzailearekin beraien berri izateko eta hemendik lagun nezakeen horretan laguntzeko. Eta egia da ondo jakin dutela egoerara egokitzen eta beraien lana burutzen. Beraz, zentzu horretan ez da hain zaila izan.

**Hemendik zaila da hondamendiari neurri egokia hartzea. Zer kontatzen dute bertan izan diren DYAko boluntarioek?**

Bai, oso zaila da hainbat kilometrotara gertatu denari hemendik neurria hartzea. Kanpotik pentsa daiteke nik hala egingo nuke eta abar, baina bertan egotean gauzak beste modu batera ikusten dira.

Gure boluntarioentzat zailena izan zen bertara iritsi eta hainbat ordutan inork ezer ez esatea nondik hasi behar zuten edo zer egitea nahi zuten. Eta gure anbulantziak Valentziako larrialdien sarean egotea lortu bazuten, boluntarioak eurak mugitu zirelako izan zen. Baina lehen esan dudana, eta inor justifikatzeko inolako asmorik gabe, zentzu batean ulertzekoa ere bada nolabaiteko kaosa egotea. Egoera hauek bapatean etortzen dira eta bidean harrapatzen duten guztia suntsitzen dute. Eta nahiz eta nolabaiteko antolakuntza izan, nik uste lehenengo une horietan kaosa egotea oso normala dela.

**Behobia-Donostian berebiziko ahalegina egiten du DYAk. Lasterketa egunean ez ezik, aurretik ere lan asko eskatzen dizuen lasterketa da, ezta? Nola joan da aurtengo edizioa?**

Urteak daramatzagu Behobia--Donostian osasun zaintza zerbitzua ematen. Eta egia esan, lan hori aurrera eramateak suposatzen duena, aldez aurretik eta egunean bertan izugarria da. DYAren zeregina lasterketaren lehen 15 kilometroetan zaintza burutzea da. Eta azkeneko 5 kilometroak Gurutze Gorriak egiten ditu. Zaintza hori burutzeko Oinarrizko Bizi Euskarridun anbulantziak, anbulantzia sendagiledunak, ospitale funtzioa beteko duten karpak, motoak, logistikako ibilgailuak eta koordinazio zentroa behar izaten dira. Aurten denera ia 100 boluntario batu dira perfil desberdinetakoak; sendagileak, erizainak, osasun teknikariak, osasun laguntzaileak, logistikako teknikariak, moto gidariak, koordinatzaileak, mantenukoak… Material gehigarri asko prestatu behar izaten da ospitaleetan jartzeko, ibilbidea aldez aurretik ongi aztertu behar da baldin eta norbait artatu behar bada edo lekualdaketaren bat egin behar bada jakiteko nondik iritsi eta nondik atera jakiteko, kontuan izanik errepide nagusiak moztuta daudela.

Logistika guztia aldez aurretik lotu behar da. Boluntarioek aldez aurretik jakiten dute guztia; kanpotik etorriak badira non lo egingo duten, nola joango diren guztiok topatzen garen lekura, handik ze ibilgailutan joango diren bakoitzari dagokion gunera, gunean ze lan burutu behar duten, nortzuk izango diren postu ezberdinetako arduradunak, nola pasa datuak, bueltan nola itzuliko diren, ondorengo bazkaria non izango duten… Guretzat urteko probarik potenteena da mugitzen duen guztiagatik. Eta aurtengoa ere halaxe izan da, oso potentea, baina oso ondo joan da eta agerian gelditu da aldez aurretik egin den lan txukuna.

Gipuzkoako DYAko 10 boluntario izan dira Valentzian: larrialdietako sarea indartzen, materiala banatzen eta ingurunea garbitzen, besteak beste.

**"EGOERA HAUEK BAPATEAN DATOZ ETA BIDEAN HARRAPATZEN DUTEN GUZTIA SUNTSITZEN DUTE"**

**"BEHOBIA--DONOSTIAN AGERIAN GELDITU DA ALDEZ AURRETIK EGIN DEN LAN TXUKUNA"**

## Formakuntzaren garrantzia

**Egunerokoan, oso garrantzitsua da edozein ezbeharraren aurrean ezagutza minimo batzuk izatea. Jendea horren jabe al da?**

Ezbeharren aurrean egin behar denaren berri izatea oso garrantzitsua da. Eta baita zer ez den egin behar jakitea ere. Nik uste orain urte batzuk baino kontzientzia gehiago badagoela zentzu horretan, baina orain-dik ere asko dago egiteko, nik uste. Eta interesa duenak ez dauka zaila formakuntza hau egiteko ze oso modu ezberdinetara egin daiteke, izan aurrez aurreko saioetan, izan online formatoan. Kontuan izanik Usurbilen kasuan herrian hainbat puntutan ditugula DESA aparailuak, hau da, desfibrilagailu erdi automatikoak, oso interesgarria da ahalik eta herritar gehienek jakitea nola egin bihotzbirika susperketa bat, nola erabiltzen diren aparailu haueketa non dauden kokatuak.

Beraz, inor bada egiteke duena, animatu dadila.

**Urtean zehar tailerrak eta formazio saio ugari eskaintzen dituzue ikastetxeetan baina baita Usurbilgo DYAko egoitzan, ezta?**

DYAk formakuntza asko egiten du ikastaro, tailer eta hitzaldien bidez. Eta herrian bertan ere eskaintzen dira horrelakoak. Ikastolan ere saio desberdinak egin izan ditugu eta egiten ditugu, formakuntzakoak zein sentsibilizaziokoak izan, uste baitugu oso garrantzitsua dela haurretatik sustatzea prebentzioaren eta boluntariotzaren gaia.

Arrakasta handia duen programetako bat 'Bihotz Birika Susperketa Lehen Hezkuntzan' da. Urtero 1.500 haur edo gazte pasatzen dira programa honetatik Gipuzkoa osoan zehar. Lehen Hezkuntzako lehen mailatik seigarren mailara bitartekoentzat eskaintzen den programa da. Txikienei beraien panpin bat ekartzea eskatzen diegu eta horiekin ikasten dute zeintzuk diren susperketa burutzeko eman beharreko pausoak. Baina hauekin garrantzitsuena ez da susperketa bera egitea baizik eta horrelako egoera bat identifikatzea eta ahalik eta azkarren laguntza nora eskatu jakitea. Eta horretarako abesti bat ere sortu genuen. 'Esku Biziak' izena du abesti horrek, Haritz Harreguyrekin grabatu genuen eta Youtuben ikusi eta entzun daiteke.

Txalaparta Festaren irekiera ekitaldian, urteetan etenda egon den ohitura berreskuratu zuten: ezkil jotzea Salbatore elizan.

# "Usurbilgo kulturaren historiarentzat egun seinalagarria"

Txalaparta Festa egun historikoa izan genuen azaroaren 9an Usurbilen. Izan ere, 1996az geroztik galdua zen ohitura berreskuratuz hasi zuten eguna; elizako ezkilak joz hain zuzen, garai batean Artze anaiek egin ohi zuten moduan.

Ikusmina sortu zuen hitzorduak. Izan ere, antolatzaileek azken urteotako jaialdiaren edizio berritzailea iragarria zuten. Eta hala izan zen hasieratik bertatik. Irekiera ekitaldi ofizial berezi askoa antolatu zuten; ezkil jotzea Salbatore elizan, garai batean Artze anaiek egin ohi zuten moduan.

### "Perkusioko tresnarik handi eta nobleenak"

28 urtez etenda egondako ohitura berreskuratu zuten, garrantzitsutzat jo zutena. Beste ezer baino lehen, zenbait azalpen eman zituzten, bitxikeriez betetako kontakizun interesgarria, Artzetarrek 80. eta 90. hamarkadetan sustaturikoa.

Sorburura jo zuen lehenbizi, kontakizun lana egin zuen Iker Muguruza herrikideak. 70. hamarkada erdialdean hasi zen Artze anaien eta ezkilen arteko hartuemana. "Jexuxek definitzen zituen ezkilak zirela perkusioko tresnarik handi eta nobleenak, ez zioen gezurrik". Aipatu moduan, 70. hamarkada erdialdean hasi ziren ikusten, "txalapartaren erritmoak ezkiletan jotzeko aukera" egon zitekeela. Ezkilak mailuekin jotzen hasi zireneko garaia dator orduan. "Ezkila bakoitzean jartzen zen anai bakoitza eta txalapartako erritmoak jotzen zituzten", azaldu zuen Muguruzak.

### Beste esperientzietatik ikasten

Baina oztopo batekin egin zuten topo. "Haiek gustura entzuten zuten haien burrunba baina gero konturatu ziren goian entzuten zela baina behean ez eta egoera horri buelta eman behar zitzaiola".

Bitartean, herritik kanpoko esperientziez blaitzen aritu ziren. "Gipuzkoan zeuden ezkile jole gutxienetako batzuekin harremana izan zuen Jexuxek. Bere koinatu Jean Paulekin joaten ziren, Bidaniara eta Oiartzunera". Halere, "berarentzat deskubrimendua izan omen zen Arruazura joan zenean". Azaroaren 9ko hitzorduan azaldu zutenez, "han ezagutu zituen Tomas Ganboa ezkile jolea eta hango apaiza Joxe Mari Satrustegi".

Aldea ba omen zen kanpandorre haien eta Usurbilgoaren artean. "Kanpandorre txikiagoak dira, orduan errazago jotzen dira, azkarragoak dira jotzen eta beti ere erritmo biziagoak egiten dira. Hemen, aldiz, kanpaiak ikusten dira ze handiak diren. Sokarekin mugitu behar dira, indar dezente egin behar da eta ezin da erritmo azkar horiekin". Horregatik, gaineratu zutenez, "Jexuxek beti zioen hango ezkila soinua soinu bizia eta alaia zela, hemengoekin alderatuta. Ez zuela zer ikusirik".

### Herri ospakizunetan

Esperientzia ezberdinen ezagutzaren ondotik, ohitura hura Usurbilen sustatzeari ekin zioten 80. hamarkada hasieran. "1980an Martin Larrañagarekin hasi zen hemen muntaia hori egiten. Usurbilgo ezkilak jotzen hasi ziren. Jotzen ziren gehienbat, herriko jai garrantzitsuen bezperetan".

**"EZKILA BAKOITZEAN JARTZEN ZEN ANAI BAKOITZA ETA TXALAPARTAKO ERRITMOAK JOTZEN ZITUZTEN"**

Hamasei urtez eutsi zioten ohitura hari, 1996. urtera arte hain zuzen. Hitzordu haietarako nola prestatzen ziren azaldu zuten. "Beti esan ohi zuen Jexuxek kanpandorrera ideia finko batekin igotzen zela baina askotan han ateratzen zitzaionarekin aurrera jotzen zuela".

Ez zuten entseatzeko leku fisikorik, baina alternatibarik aurkitu zioten oztopo horri. "Santueneko bidean, orain kenduta dagoen zubian, burdinean bi goilarekin entseguak egiten" aritzen omen zen kanpandorrera igo aurretik.

1996an isildu ziren Usurbilgo ezkilak, bai behintzat modu edo erabilera honetarako. 28 urteren ostean ohitura hau berpiztu zuten azaroaren 9ko Txalaparta Festan.

Larunbat goiz hartako 10:00ak jota kanpai hotsak entzungo zenituzten herriko txoko ezberdinetatik. Ez ziren ordueroko ohikoak, ezta hiletak iragartzerakoan entzun ditzakegunak ere, edota garai batean bezala suterik zela iragartzeko. 1996tik entzun gabekoak genituen hotsak berreskuratu zituzten. Izan ere, Jexux Artze K.E.-k 650 Usurbil Bizi herri egitasmoarekin batera antolaturiko Txalaparta Festa horri Salbatore elizako kanpandorretik ekin zioten, ezkilak joz hain zuzen.

### Martin Larrañaga, aitzindari

Ezkilak jotzeko ohitura berreskuratzen lehena, Martin Larrañaga izan zen. Usurbilgo alkate ohia izan zen hain zuzen, 1996an, ohitura hau galtzear zela, ezkilak jotzen ibili zen azkenetakoa. Berarekin batera aritu ziren zeregin berean eta eman zioten hasiera ofiziala Txalaparta Festari, Iker Muguruza eta Jurgi Fuentes Jexux Artze Kultur Elkarteko kideek.

# Ernaik eta isundutako kideek herri eragileen babesa jaso dute

Gazte antolakundearen jardunagatik Ernaiko 133 kideek jasotako isunen aurrean babesa adierazi zieten Usurbilgo plazan eginiko elkarretaratze iraunkorraren bidez.

Ernaik ordu eta erdiko mobilizazio iraunkorra egin zuen aurreko ostiralean.

Ordu eta erdiko elkartasun ekimenak hartu zuen Usurbilgo plaza ostiral iluntzean, Ernai gazte antolakundeari eta isundu dituzten kideei elkartasuna adierazteko. Argi zioen, ondoko irudiko pankartak zerk eragin dituen isunok; "gazte borrokan aritzeagatik" izan da; iazko irailean, Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteen espetxeratzea salatzeko Bilbon eta Gasteizen eginiko ekimenetan parte hartzeagatik, hain zuzen.

Guztira 290.500 euroko isuna ezarri diete Ernaiko 133 kideei. Isunon aurrean kolektiboki eta politikoki erabaki dute 133 gazteek helegiteak aurkeztea eta epaitegira jotzea.

Epaiketaren atarian, hainbat herri eragileek atxikimendua adierazi zieten aurreko astean egin zen elkarretaratze iraunkorrean. Hitzorduan parte hartu zuten, Usurbil FT eta Usurbil KE-ko seniorrek baita Kuraia Usurbil kickboxing taldeko kideek ere. Deialdiarekin bat egin zuen baita Usurbilgo Kulturguneak, Aztarrika gazte asanbladak, Kafe Tertuliak, Sarek, EHBilduk eta Sortuk.

### Jazarpen estrategia salatzen duen manifestua

Euskal Herriko eragile sindikal, sozial eta politiko hainbatek ere atxikimendua adierazi diete egunotan kaleraturiko manifestu baten bidez. Abiatzear den epaiketaren aurrean, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak hainbat kolektiboren aurka abian duen "jazarpen estrategia" salatu zuten Gasteizen eginiko agerraldian.

Protesta sozialen aurkako erasoak geroz eta ohikoagoak direla salatu dute. Horregatik, Jaurlaritzari galdegin diote "jazarpen estrategia sistematikoarekin amaitzeko" eta horrekin batera, "herritar ororen eskubide zibil eta politikoak bermatzeko". Epaiketa azaroaren 28an abiaraziko da.

Usurbilgo Kulturguneko kideak gazte antolakundeari babesa agertzen.

EHBilduk eta Sortuk ere bat egin zuten Ernairen mobilizazioarekin.

Usurbil F.T. eta Usurbil K.E.-ko seniorren eta Kuraia Usurbil taldekoen babesa.

Usurbilgo Sarek agerturiko atxikimendua Ernairen mobilizazioari.

Ikusmin handiena eragiten duen unea biziko dugu berriz igandeko Erle Egunean; goiko argazkikoa.

# Hitzordu hain gozoa ez aurtengoa

Erle Lagunak taldeak asteburu pasa antolatu du larunbat gauetik igande bazkalordura arte. Tarte horretan ospatuko da Usurbilen izan ohi den urteko ziklo gozoena. Halere, ez garai batekoa bezain gozoa, deitzaileek lerroon bidez ohartarazi dutenez.

Urteko hitzordu gozoenaren atarian da udalerri hau. Izan ere, bueltan dator 23. Erle Eguna igande honetan; aurtengoan, bezperan hasita, larunbat gauean eskainiko den "20.000 especies de abejas" filmarekin. Erle Lagunak taldearekin lotura estua duen ikus-entzunezko saritua eskainiko dute Sutegin. Biharamunean ere osagai ederrez betetako eguna izango da frontoi inguruan. Batetik, bertako produktuez hornituriko postudun azoka zabalduko dute plazan. Tartean, adi; kandelak egiten ikasteko aukera izango dute gaztetxoenek. Azken urteotan etendako ohitura ere berreskuratuko dute. Izan ere, jogurta eztiarekin banatuko dute, garai batean egiten zuten moduan. Gorrotxategik ere jendeak, tartean gaztetxoek hain estimatua duten txokolatearen txokoa izango du. Ezti txapelketa ere jokoan izango da, eta epaimahaiaren balorazio lana hurbiletik ikusteko aukera egongo da. Ikusmin handia eragiten duen unea errepikatuko da eguerdian, erleak ekarriko du eta txapela irabazleentzat. Eguerdian izango da sari banaketa, ikastetxeen parte hartzea sustatuko duen marrazki lehiaketaren eta gozogintza txapelketako sari emateekin batera. Gozogintzakoan herritar orok parte har dezake, postre eder bat sukaldatu eta aurkeztu dezakezue igandeko lehiara.

Horrez gain, urtero osagai desberdinak txertatzen ahalegintzen dira Erle Eguneko antolatzaileak. Aurtengoan, eztia nola ateratzen den, prozesu hori erakutsi asmo dute.

### "Urte txarra"

Ez da, ordea, ediziorik gozoetan gozoena izango antolakuntzatik, Erle Lagunak taldetik aditzera eman dutenez. "Urte txarra" izaten ari da honako hau. Erlezaintzari biziki estua dagoen Erle Eguneko antolakuntza taldeko buru Julian Urkiolak NOAUA!ri azaldu dionez, orohar, halako azokak bizitzen ari diren gainbeherarekin batera, urte zaila izaten ari da eztigintzaren ikuspuntutik. "Udaberria oso euritsua egin zuen. Loreak ez du hartu behar bezala, fruta gutxiago izango da. Horrek ere murriztu egiten du eztia". Bere esanetan, eztia oparo izateko "lehendik etorri behar du erleak indartuta. Naturak ematen dizkion elikagai guztiak orduan biltzen ditu baina indarrean baldin bada, ahul bada ezin ditu denak bildu". Testuinguru honetan, aldaketa klimatikoaren eragin nabarmenaz ohartarazi du.

**"EZ GAUDE GARAI ONEAN, BAINA ERLEZAINAK EGOTEA NAHI BADUGU, ZERBAIT BEHARKO DA"**

Horri Erle Egunak ere bizi duen egoera batu behar. Babes handiagoa eskatu dute Erle Lagunak taldetik lerroon bidez; batetik administrazio publikoarena, antolaketa lanen eskakizunei aurre egiteko. "Erle Eguna galtzen bada, zaila izango da berreskuratzea. Ez gaude garai onetan, baina herrian erlezainak egotea nahi badugu, zerbait beharko da".

### "Erlezainok lagundu behar gaituzte"

Sektorearen garrantziaz ohartarazi dute, igandeko Erle Egunean egin nahi duten moduan, alor hau plazaratu, ikusgarri egin eta haren erakusleiho lana izaten baita urtero. Ezinbesteko "erlerik ez balego natura bukatuko litzateke. Einstenek zioenez, gizakiok bost urteko biziraupena izango genuke erle gabe". Urkiolak gogorarazi duenez, polinizazioan eragiten duten agente gehiago egon arren, "%77a erleak egiten du". Horrekin batera, naturarentzat eta gizakiontzat ongarri diren produktu asko. Baina, egun, erle gutxiago dagoela ohartarazi du Urkiolak, "eztiak ez du lehengo balorerik" eta nazioarteko ekoizpenaren aurrean, "ezin dugu lehiatu". Erle Lagunak taldeko kideak oroitarazi duenez, "gogoan dut, lehen hamar erlauntzekin ezti pixka bat ateratzen zenuen. Gaur egun, hamar erlauntzekin ez duzu ezer, hamarrak bizirik

⟶ ateratzeko nahiko lan" izaten da.

Horren islada argia da, Gipuzkoako erlezain elkartearen baitan, bazkide kopuruan izandako gutxitze nabarmena eta "gabiltzanak helduak gara. Gazteren bat bada, guraso erlezainak izan dituelako da. Erlezain berriak oso gutxi dira". Etorkizunera begira, gainera, ez dago behar besteko erreleborik. "Erlezainok lagundu behar gaituzte", galdegin du NOAUA! bidez Urkiolak. Izan ere, "ikusten ari da hortik etorkizunik ez dagoela. Ze etorkizun nahi dugu polinizatu gabe? Ez da posible".

Sektoreak bizi duen egoeraren islada argia da baita Erle Egunak Usurbilen bizi duena. Antolakuntza taldean ere babesa eta laguntza behar dute; lekuko aldaketaren beharrean dira. "Gure erreleboa bukatzen denean, ez dakit antolatuko ote den Erle Egunik. Nik nahi nuke bai. Hainbeste urteetan aritu eta gero nahi nuke aurrera segitzea", adierazi digu Urkiolak. Horregatik, laguntzeko prest dagoenari adierazi nahi dio, "etor dadila", trantsizio lana egiteko prestasuna agertu dute.

Julian Urkiola azalpenak ematen, iazko Erle Egunean.

### Erlezaintza filmean

Aurtengo eskaintzan izango den osagai berrietako bat, "20.000 especies de abejas" film proiekzioa izango da, ezin egokiagoa Erle Egunaren bezperan Sutegin proiektatzeko. Ez soilik izenburuagatik, ikus-entzunezkoaren mamiagatik ere, estuki lotua baitago antolatzaileei. Filmaren zuzendari Estibaliz Urresola Solaguren erleen munduaz ezagutzeko ikusminak bultzatuta, "lagun batek esanda" heldu zen Julian Urkiolarengana. Erlezaintzaren nondik norakoak azaldu zizkion. Une hartan harremantzen hasi eta filmean agertuz amaitu du Urkiolak. "Erlezain erlekumea jasoz eta udare batzuk biltzen agertzen naiz", berri eman dio NOAUA!ri. Agerpenaz haratago, filmaren edukiari erreparatu nahi dio, ordea. Ikus-entzunezkoaren kontakizunak erlezaintzaren mundura hurbilduko gaitu. Gaztetxo baten trantsizio bidea islatzen duen filma da, onarpenarena. "Aldaketa hori etortzen da noiz, protagonistak zer izan nahi duen etxean onartzen dutenean". Onarpena bistaratzen den uneak erlezaintzarekin lotura estua du filmak. "Makila batekin erlauntzari jotzen dio", gogorazi du Urkiolak.

Hori ez da gaurko ohitura, Erle Lagunak taldeko ordezkariak azaldu digunez. Baserrien estatusa, bertan zeuden idi-pare kopuruaren arabera neurtzen omen zen garai batean eta erleekin ere hala egiten omen zen. Geure artean gai hauei buruz argibideak eskaintzen aritutako antropologo batek esandakoak ekarri dizkigu gogora Urkiolak; "erlauntzak nola jartzen ziren baserrietako ohorezko tokian, alde goxora, hegoaldera begira, argizaria egiteko. Baserriko norbait hiltzen bazen, besteak kaxa jo behar zuen, argia behar zuela hildakoak eta argizaria egiteko eskatuz. Filmean ere makila batekin erlauntzari jotzen dio, hor egiten du bere trantsizioa. Gogoratzen dira etxean, bera onartua izan dela, erleak egiten duen bezala". Berlingo nahiz Malagako zine jaialdietan, Goya, Feroz edota Europako Zine Sarietan saritua izan den ikus-entzunezkoa behin baino gehiagotan ikusteko modukotzat jotzen du Urkiolak. Larunbatean ikusgai izango duzue Sutegin, biharamuneko gainerako hitzordu hauekin batera:

**"GABILTZANAK HELDUAK GARA. GAZTEREN BAT BADA, GURASO ERLEZAINAK DITUELAKO DA"**

**"GURE ERRELEBOA BUKATZEN DEN GARAIAN, EZ DAKIT ANTOLATZEN SEGIKO OTE DEN ERLE EGUNIK"**

### 23. Erle Eguna

**Azaroak 23, larunbata**
**22:00** "20.000 Especies de Abejas" filma Sutegin.

**Sinopsia:** "Cocók zortzi urte ditu. Ez dator bat gainontzekoek berarengandik espero dutenarekin, eta ez du ulertzen zergatik. Inguruko guztiek beti Aitor deitzen dioten arren, berak ez du bere burua izen horrekin identifikatzen. Anek, bere amak, oporrak aprobetxatuko ditu bere hiru seme-alabekin amaren etxera joateko. Bertan bere ama Lita eta izeko Lourdes erlezaina bizi dira. Uda honek bizitza aldatuko die".

**Azaroak 24, igandea**
**09:00-10:00** Ezti eta gozogintza bilketa.
**11:00-14:00** Azoka: postuetako salmenta.
• Erakusketak Sutegin: erleak, eztia ontziratzeko prozesua, Marrazki Lehiaketako lanak, bideoak...
• Ezti dastaketa frontoian, eztia eta txokolatearekin egindako goxoak, jogurta eztiarekin banatuko da.
**13:30** Euskal Herriko XXIII. Ezti Lehiaketako sari-banaketa:
• Ezti Lehiaketako irabazleak.
• Gozogintzako irabazleak.
• Marrazki Lehiaketako irabazleak.
**Antolatzailea:** Usurbilgo Erle Lagunak.

Mundualdiak udalerri honetako jatorri aniztasuna plazaratzen du urtero.

# "Lanean segi behar dugu, gizarte kohesionatu bat eraikitzeko"

Sorterrien Usurbil, bertako jatorri aniztasuna plazaratu zuen beste urte batez Mundualdia jaialdiak. Larunbateko bilkura ahalbidetu zuten herrikideak eskertu nahi izan zituen alkateak.

"Plaza honek Usurbilen bizi dugun jatorri eta kultura aniztasuna islatzen du. Elkar ezagutzen eta elkar topatzen jarraitzeko aukera paregabea eskaintzen digu gaurko jaialdiak", zioen Agurtzane Solaberrieta Mesa alkateak arratsaldeko ekitaldien hasieran.

**"Bizitza duina garatu ahal izatea"**

Aurrera begira egin beharrekoaz ere jardun zuen. "Xenofobia eta arrazakeria nagusitzen ari den garai hauetan, eskuin muturraren gorakadaren ondorioz, argi daukagu ezinbestekoa dela etorkizunari begirako oinarri sendoak eraikitzea gure herriaren identitate aniztasun hori errespetatzeko, denok edozein tokitan amets bera dugulako, bizitza duina garatu ahal izatea". Horregatik, "lanean segi behar dugu gizarte kohesionatu bat eraikitzeko, multikulturartekotasuna eta multidibertsitatea onartuko dituena".

**"Batu gaitezen gehiago"**

Askotariko sorterri eta herrikideez osaturiko Usurbil batua aldarrikatu dute aurtengo Mundualdia sustatzen aritu direnek, hasiera ekitaldian hitza hartu zutenean. "Gaurkoa egun berezia da eta ospatzekoa. Guretik zertxobait eskaini nahi dizuegu, zuek gurekin zuen herria partekatzen duzuelako, irribarre sentitu baten bidez".

Izan ere, "leku egokian egotearen ongizatea eta segurtasuna sentitzen dugu eta hori jendeak soilik egin dezake, Usurbil osatzen duen familiak, gaur egun baita gure etxea denak". Etxe partekatua dela gogorarazi ziguten esker onez, "gaur herri bakar bat gara, lurralde bakarra".

Mundualdian sumaturiko lurralde bakar hori egunerokoa izan dadin, oraindik bada zer egina, ordea. Horregatik deialdi argia egin zuten. "Borrokatu eta denon artean hautsi dezagun irudizko horma hori eta batu gaitezen gehiago. Herri bakar bat izan behar dugu denok batera. Gora Usurbil eta usurbildarrak!", goraipatu zituen hitza hartutako herrikideetako batek.

Mundualdia Bizipoza Jardunaldiarekin abiatu zen.

Goiz partean, Zirimararekin jolasean aritu ziren gaztetxoak.

Jendetza batu zen arratsalde parteko jakien dastaketan.

Doinu kubatarrekin agurtu dute aurtengo Mundualdia.

Hurbilagoko kideak, poltsa isotermikoak eskuartean dituztela.

## Poltsa isotermikoak, herrian erostearen truke

Herriko dendetan 30 euroko erosketak eginez gero, "bertako dendetan erositako kalitatezko produktuak fresko mantendu eta etxeratzeko" poltsa isotermikoak eskura ditzakezue. Hurbilagok abiarazitako kanpaina berria duzue. Lehen 50 erosleei zuzenduriko eskaintza izango da honako hau.

"Go!azen"-en aurrestreinaldiak ikusmin handia sortu zuen.

## "Go!azen"-en aurrestreinaldiak bitan bete zuen Sutegi

Ikusmina bazen, gonbidapenak eskuragarri jarri orduko agortzen hasi baitziren. "Go!azen" telesailaren denboraldi berriko lehen atalaren aurrestreinaldiak bitan bete zuen iragan ostiralean Sutegi, EITB-ren eta UEMA-ren eskutik. Hilaren 22tik aurrera ikusgai izango da ETB-n.

Urdiñarben izan den herri ordezkaritzak ateratako talde argazkia.

## Urdiñarben izan dira urteroko elkartasun afaria sukaldatzen

Astebete lehenago izandako xiberotarren bisitaren ondotik, herri ordezkaritza bat Urdiñarben izan da asteburuan, Seaskako integrazio batzordearen aldeko elkartasun afaria sukaldatzen eta zerbitzatzen, Zuberoako lagunekin batera. 180 lagun inguru batu zituen hitzorduak. Mende laurdena bete du jada ohitura honek.

Aginagako orientazio jolasei ekin zieten unea.

## Batere galdu gabe ibili ziren Aginagako orientazio jolasetan

Orientazio jokoak egin zituzten azaroaren 17an Aginagan. Ordu eta erdiko tartea izan zuten familiek hamar baliza aurkitu eta mapan zuloak egiteko. Orientaziorako, ibaiaren erreferentzia hartu zuten iparra bistatik ez galtzeko eta mapako sestrakurbak eta bidea irakurri behar izan zituzten hamar puntuak behar bezala aurkitzeko.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patri
Patrienea Tatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
✆ 943 362725 · ✆ 688 690 361

Miriam Arrillaga (eskubikoa) eta Itxaso Erasun, txapelak eskuratu berritan.

# Miriam Arrillaga Beloki, Gipuzkoako Eskuz Binakako Pilota Txapelketako garaile

Miriam Arrillaga eta Itxaso Erasun 22-8 nagusitu ziren Aloña Mendi taldeko Etxegarai-Oses bikotearen aurkako finalean.

Beste garaipen bat Miriam Arrillaga Belokirentzat. Gipuzkoako Eskuz Binakako Pilota Txapelketa irabazi du Itxaso Erasunekin batera, nagusien mailan. 22-8 izan zen finalean eskuraturiko azken emaitza. Duela bi asteburu jokatu zuten neurketa hau Donostiako Atano III. frontoian, Aloña Mendi taldeko Etxegarai-Oses bikotearekin.

Villabonako Behar Zana Pilota Elkartearekin izan du garaipen hau Arrillagak. Elkarte horretatik jakinarazi dutenez, "txapelketa bikaina egin dute Miriam Arrillagak eta Itxaso Erasunek. Arrillagak aurten ere aurretik jokatu du Behar Zana taldean Miren Larrarte delako aurrelari bakarra eta harek Irati Zabalarekin osatu du bikotea".

Txapeldun berriz ere, beraz, Arrillaga. Izan ere, "iazko balentria errepikatu dute Arrillagak eta Erasunek berriz ere txapela irabazita". Behar Zanatik oroitarazi dutenez, "aipatu beharrekoa da, Erasunek 3. urtea duela jarraian Gipuzkoako txapeldun izaten. 2022an Miren Larrarterekin irabazi zuen Behar Zana ordezkatuz. Iaz Arrillagarekin". Urtebete lehenago, 2021ean, "Miren Larrartek eta Miriam Arrillagak irabazi zuten txapela, orduan desagertua den Su Berri taldea ordezkatuz. 4 urtetan, 3 pilotari hauen buruetan jantzi dira txapelak".



Azaroaren 24an bukatuko da epea.

## "Ibai-Ondo Backyard" ekimenean izen--ematea zabalik

Apirilaren 12ko asteburuan Santuenean antolatu duten erronkan parte hartzeko izena eman dezakete usurbildarrek aste honen amaierara arte, azaroaren 24ra arte backyardibaiondo@gmail.com helbidean.

Antolakuntzak parte hartzaileen aldetik jasotako emailen hurrenkeraren arabera erabakiko dira nortzuk izango diren parte hartzaileak eta parte hartzaileei jakinaraziko diete nortzuk izan diren onartuak, nortzuk ez, ordaintzeko modua adieraztearekin batera. Erronkako kide bakoitzak 35 euro ordaindu beharko ditu. 100 plaza izango ditu ekimenak, haietatik 25 usurbildarrentzako erreserbatuak ditu antolakuntzak. Abenduaren 2tik aurrera, interesa duen ororentzako zabalduko dute inskripzio epea.

Gogoan izan, Santuenea, Atallu eta Txokoalde lotuko dituen 6,7 kilometroko ibilbidea ordubete baino lehen osatzean oinarritua dago erronka. Orduero errepikatu beharko da ibilbide hau, 60 minutuak gainditu edo nekatu arte. Santueneko frontoia izango du abiapuntu eta helmuga erronkak. Informazio gehiago:

- Instagram: @ibai_ondo_backyard
- Facebook: Ibai-ondo Backyard

Zubietarra, Bertsolari Txapelketan.

## Asier Azpiroz Iztueta laugarren, Oiartzungo finalaurrekoan

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa Oiartzunen jokatu zen, aurreko asteburuan. Beñat Gaztelumendi nagusitu zen eta zubietar bertsolaria laugarren sailkatu zen. Lehen sailkatua izan zenez, Beñat Gaztelumendi Arandia zuzenean pasa da Donostia Arenan jokatuko den final nagusira. "Gainontzekoek puntuazioaren arabera izango dute finalean kantatzeko aukera", ohartarazi dute Gipuzkoako Bertsozale Elkartetik.

**Oiartzungo sailkapena:**

- Beñat Gaztelumendi Arandia: 560,5.
- Ane Labaka Mayoz: 552.
- Nerea Elustondo Plazaola: 522,5.
- Asier Azpiroz Iztueta: 475,5.
- Oier Etxeberria Zubimendi: 468,5.
- Eli Pagola Apezetxea: 449.

**Gainonzeko finalaurrekoak**

- Azaroak 24, 17:00 Zarauzko Aritzbatalde udal kiroldegian.
- Abenduak 1, 17:00 Arrasateko Uarkape pilotalekuan.

**Finala**

- Abenduak 14, 17:00 Donostiako Ilunbe zezen plazan.

Sarrerak bertsosarrerak.eus atarian eskuragarri.

## “Sagar eta Sagardo Kultura” zikloko azken hitzordua

**Azaroak 28, osteguna**
• 18:00-20:00 "Sagardo Kluba: Bizio sagardogilearekin dastaketa komentatua", Aginagako Eliza Zaharra Kulturgunean.
• Izen-ematea:
sagardoa@ni.eus
630 938 027.
• Antolatzaileak: Sagardoaren Unibertsitatea; Alkartasuna Kooperatiba; Usurbil Sagarraren Bihotza, Sagardoaren Kultura.
• Laguntzaileak: Usurbilgo Udala; Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea.

## Azaroan zehar KzGunea goizez egongo da zabalik

• Abenduak 2-12, 16:00-18:00 "Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPekin".
• Abenduak 13-16, 16:00-18:00 "Google Maps. Zure ibilbiderik onena arakatu eta aukeratu".
• Abenduak 17-23, 16:00-18:00 "Mekanografia. Ikasi hutsetik".
Azaroaren 29ra arte, goizero irekiko dute Usurbilgo KzGunea, 9:00-13:00 artean.

**Informazio gehiagorako:**
Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

# Liburutegiko hitzorduak

Hona hemen urte amaiera arte Sutegi udal liburutegian iragarri dituzten azken ekitaldien berri. Adi, azken asteotan eginiko eskaintzan zenbait aldaketa txertatu dituzte eta:

**Azaroak 27, asteazkena**
18:00 Irakurketa solasaldia, 8-11 urte arteko haur eta gaztetxoentzat. Leire Bilbao eta Maite Mutuberriaren "Xomorropoemak eta beste piztia batzuk" izango dute mintzagai.

**Abenduak 13, ostirala**
19:00 "Etxe bat, norberarena" Yolanda Arrieta eta Peru Galbete herrikideen solasaldi poetiko musikatua.

Leire Bilbao eta 'Xomorropoemak'.

**Abenduak 20, ostirala**
11:30 Irakurketa solasaldia 11 urtetik gorakoentzat. Roald Dahlen "Sorginak" izango dute mintzagai.

Oharra: Ekitaldiotarako izen-ematea aurrez egin behar da. Saio horietan parte hartu nahi dutenentzat liburuak eskuragarri Sutegin bertan.

## Azaroaren 25ari begira hainbat ekimen iragarri dira

Ate joka den azaroaren 25eko Indarkeria Matxistaren Kontrako Indarkeriaren Egunaren harira, zenbait hitzordu iragarri dituzte Usurbilgo Kafe Tertulia taldeak eta Emakumeon Etxeak (Pelaioenea erakinean, Kalezarren).

**Azaroak 23, larunbata**
• 11:00 Pankartak egiteko deialdi irekia.

**Azaroak 25, astelehena**
• 19:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

**Azaroak 26, asteartea**
• 17:30 Soilik baietz da baietz' Legearen inguruko hitzaldia, Azaroaren 25eko Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren harira, Irule abokatuak taldearen eskutik.

Antolatzaileak: Kafe Tertulia eta Emakumeon Etxea.

## Zumarteren 40. urtemugako ospakizunen hasiera

**Azaroak 21, osteguna**
• 18:00 Santa Zeziliren omenez Euskal Herriko Musika Eskola guztiak bateratuta, kalejira egingo Usurbilgo kaleetan zehar, trikitixa-pandero eta haizezko zein perkusioko instrumentuekin batera.
• 18:30 Zumarte Musika Eskolaren 40. urtemugako ospakizunen hasiera Mikel Laboa plazan. “Egun da Santimamiña” abesti ezagunaren doinuarekin Zumartekoek sortutako bertsoak abesteko gonbita luzatu diete herritarrei hilaren 21ean. Denek batera datorren ekainera arte luzatuko den ospakizun urteari hasiera emango diote.
• 19:00 Sutegin, talde instrumental desberdinen kontzertua. Sarrera: doan.
Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

# Euskararen Astearen atarian

Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, Euskararen Astea iragarri dute Usurbilen.

**Azaroak 30, larunbata**
• 12:00 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik. Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.
• 22:00 Euskararen Gala Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean. Idoia Torregarai, Ander Malbadi eta Julen Portilloren bakarrizketak, Asier Kidam magoa, Unai Gaztelumendi marrazkilaria, Zoe kontortsionista, Ines Osinaga, ApanRapa, SuTaGar taldeko Aitor Gorosabel & Xabi Bastida musikariak, Las Kolgadasen zirku ikuskizuna, Danna Lux, Gata al kuadrado, Euskaraldiaren herri aurkezpena, fotokola, Dj Aritz&Ilargi...
• Sarrerak 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman eta Aginagako Arraten.
• Antolatzaileak: Antxomolantxa KE eta Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea.

**Abenduak 1, igandea**
• Egunean zehar, Mikel Laboa gogoan hil zeneko hamaseigarren urteurrenean. Bere musika entzungai omenaldi gisa bere izeneko plazan.
• 11:30 Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren "Ostirala iritsi da!" ikuskizuna Oiardo kiroldegian. Sarrerak agortuak. Antolatzaileak: NOAUA! K.E. eta Usurbilgo Udala.
• 18:00 “Artea” antzezlana Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean. Aktoreak: Ramon Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza. Sarrerak: 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. Antolatzailea: Aginagako San Praixku Guraso Elkartea eta Eliza Zaharra Elkargunea.
• 18:00 “Gregoria”, Bea Egizabalen bakarrizketa Zubietako Kaxkapen. Sarrera doan. Antolatzailea: Zubieta Lantzen.

**Abenduak 3, asteartea**
Euskararen Eguna.

Mario Perez itsasazpian, arrainez inguratuta, botila bizkarrean duela.

# "Ikusi ditut arrainak plastikoz inguratuta eta igeri egin ezinean"

**MARIO PEREZ MERINO** URPEKARIA ETA INSTRUKTOREA

Mediterraneoko uren gardentasunak eta itsasoarekiko maitasunak Formenterara eraman du Mario Perez urpekari profesionala. Horra herritarraren esperientzia.

**Formenteran zabiltza azken aldian. Zerk eraman zaitu bertara?**
Duela urtebete urpekaritzan instruktore izateko ikastaroa egin eta diploma lortu nuen. Donostian ibili nintzen lanean Buceo Donostin. Behin uda bukatuta, aplikazio baten bidez urpekaritzan instruktore izateko lan bila hasi nintzen eta Andaluzian aurkitu nuen horretarako aukera. Hilabete egin nuen han, baina ez zitzaidan gustatu lan egiteko modua. Buceo Donostiko lagunekin harremanetan jarri eta haien kontaktuen bidez jakin nuen Formenteran instruktore bila zebiltzala. Haiekin kontaktuan jarri eta lan elkarrizketa egin ondoren, baiezkoa eman zidaten eta hona etorri nintzen lanera uztaila hasieran.

**Nolatan interesatu zinen urpekaritzan?**
Denek egiten didate galdera bera. Ez da oso ohikoa gurean urpekari izatea eta are gutxiago instruktore izatea. Kontua 2018an hasi zen, Kataluniara oporretara joan eta aitak urpekaritza saio bat oparitu zigunean anaiari eta bioi. Ikaragarri gustatu zitzaidan esperientzia; inoizko oparirik onena izan zen. Itsasoa beti gustatu izan zait eta horrekin lotuta jarraitu nahi nuen. Behin eskola amaituta, lagunak unibertsitatera begira jarri ziren, beste batzuk lanbide heziketara, baina ni horrelako ezerk ez ninduen erakartzen. Beraz, urpekari profesional izateko ikastea erabaki nuen Pasaian. Horrekin batera, itsasontziak gidatzeko eta instruktore izateko titulua ere atera nituen. Ondoren, lanean murgiltzen hasi nintzen.

**Urpekari profesional izateko ikastaroak egin behar dira.**

**"ITSASONTZIAK GIDATZEKO ETA INSTRUKTORE IZATEKO TITULUAK ERE BADITUT"**

Titulu asko daude urpekaritzan. Dibertsiora bideratutako tituluak daude, hau da, zaletasuna izan eta titulazio bera duten pertsonekin ondo pasatzeko aukera ematen dutenak. Tituluen arabera, instruktore batekin joatea derrigorrezkoa izango da edo ez. Urpekari profesional izan nahi dutenentzat ere badira tituluak. Tituluek zehazten dute instruktorearekin joan beharko duzun, zenbat metro arte jaitsi zaitezkeen eta zein helbururekin.

**Denok lor genezake urpekari izatea? Zein gaitasun behar dira?**
Urpekaritzak garapen handia izan du materialekin eta abar. 8 urte izatea da minimoa eta ez dago gehiengo adinik. Urpekaritzan hasi aurretik galdera asko egiten dizkizute gaixotasunik baduzun jakiteko, kasu batzuetan ez baita posible ur azpian asko jaistea. Hala ere, material mota asko daude eta egoera askotara moldatzeko aukera dago. Uda honetan, 70 urteko pertsona bat izan dut eta 8ko beste bat. Denentzat prestatutako jarduera da, gaixotasun batzuk salbuetsita. Osasun egoera ona duen norbaitek eta fisikoki ondo dagoen edonork egin dezake.

**Kantauri itsasoan edo Mediterraneoan badaude arriskuak?**
Leku guztietan dago arriskutsua izan daitekeen zerbait. Arrain pozointsuak daude, marmokak, ukitu ezin diren algak, harriak… ur azpian bizitza dago, eta mundu bat, nahiz eta ikustera oso ohituta ez gauden. Krustazeo askok arantzak dituzte. Hala ere, esango nuke gurean arriskuak ez direla horrenbeste, aniztasuna ere ez delako hainbestekoa.

**Flora eta fauna oso ezberdinak izango dira Mediterraneoan eta Kantauri itsasoan, ezta?**
Gurea ez da oso argia eta koloretako arrainak ere ez dau-

⟶ de. Zikinkeria asko sartzen da eta aniztasuna ere ez da horrenbestekoa. Formenteratik Kantaurira argitasunean nabaritu dut ezberdintasuna. Formenteran ura argiagoa da, baina Donostian animalia gehiago ikusteko aukera daukazu. Olagarro asko ikusi izan ditut gurean; krustazeoak ere askoz gehiago dira Kantaurin.

**Gurean badago aukerarik urpekaritza interesatzen zaienentzat?**
Getarian bada aukera eta Lezo inguruan dago Buceo Donosti, nik ikasi nuen lekua. Han ikasi nuen nik dakidan guztia. Ez daude klub gehiegi, urpekaritza turismotik bizi da, batez ere, eta ez da oso ohikoa jendea Donostiara oporretara joatean urpekaritza egitea, ez zaie horren deigarria egiten. Hala ere, denak animatuko nituzke probatzera eta aukera bat ematera. Oso esperientzia polita da, benetan.

**Badirudi giro onean egiten den jarduera dela urpekaritza, gainontzekoekin harremanetan eta elkarlaguntzen.**
Bai, erabat. Garrantzia handia du urpekaritzan gainontzekoekin harremantzeak. Lagunekin joatea bezala da eta garrantzitsua da gustura egotea. Interesa mantentzeko eta berriz ere leku jakin batera itzultzeko beharrezkoa da gainontzekoekin daukagun harremana.

**Askotan entzuten dugu itsasoak oso zikinak daudela eta animaliak arriskuan. Ur azpian hori ikusten duzue?**
Bai, momentu batzuetan nabariagoa da, eta beste batzuetan ez gehiegi. Oso aldakorra izaten da. Denboralearen arabera, ikaragarri antzematen dugu. Behin ikusita, ezin duzu burutik kendu. Buceo Donostin urtean behin itsasoa garbitzeko jardunaldia egiten dute eta orduan denetariko zaborra ateratzen dute: plastikoa, gurpilak, latak… kiloka zabor. Bost bat aldiz edo ikusi ditut arrainak plastikoz inguratuta eta igeri egin ezinean erdi hilda. Ez zait gehiegi gertatu, baina ikusi izan ditut halakoak.

Mario Perez urpekaria Formenterako portuan, itsasoratzeko prest.

**Zure egunerokotasuna nolakoa da?**
Goizeko 8etarako mugitzen hasten gara eta egun osoan beharko dugun materiala itsasontzira eramaten dugu. Dena prestatzen dugu goizean goiz. Gero, pertsonak iristen dira eta hitz egiten dugu ondo senti daitezen. Ondoren, itsasontzian sartu eta eraman beharreko puntura joaten gara. Bidean azalpenak ematen dizkiegu, bakoitzari behar dituenak titulazioaren arabera. Batzuetan azalpenak eman behar izaten ditugu lehen aldia dutenentzat. Banatu egiten ditugu lanak. Astelehenetik larunbatera egiten dugu lan. Turismoari esker bizi gara, batez ere, udan. Orduan lan ikaragarri egiten dugu; horretatik bizi da jendea.

**Urpekari izatetik bizitzea gustatuko litzaizuke etorkizunean?**
Galdera zaila. Gaztea naiz oraindik eta honetan ikusten naiz. Ez dut imaginatzen neure burua 10-20 urte barru beste zerbait egiten. Ez dakit instruktore, urpekari lanetan edo zertan zehazki, baina itsasoari lotuta; hori ziur.

**"HEMENGO URA ARGIAGOA DA, BAINA DONOSTIAN ANIMALIA GEHIAGO IKUSTEKO AUKERA DAGO"**

**"EZ DUT IMAGINATZEN NEURE BURUA 10-20 URTE BARRU BESTE ZERBAIT EGITEN"**

Mario Perez

## Laburrean

**Zenbaki bat:**
3.

**Kolore bat:**
Urdina.

**Miresten duzun kirolari/entrenatzaile bat:**
Eneko Furundarena.

**Gustuko duzun itsaso bat hauta ezazu:**
Kantauri itsasoa.

**Ikusi duzun azken pelikula edo telesaila:**
*El peor vecino del mundo* (A man called Otto, 2022).

**Liburu bat aholkatuko diguzu?**
*Agurea eta itsasoa* (The old man and the sea, Ernest Hemingway, 1952).

**Zein da zure abestirik gogokoena?**
*Azkenak*, Odolaren Mintzoarena.

**Zein da gehien jarraitzen duzu sare soziala?**
Instagram.

**Usurbilgo txoko bat aukera ezazu.**
Errekatxiki.

**Santixabelak ala Sagardo Eguna?**
Santixabelak.

**Oporretarako toki bat.**
Formentera.



Erraustegiak herritarren osasun eta ingurumenean izandako eragina aztertu du Biodonostiak.

# Bilera, Biodonostiaren txosten kezkagarriaz

Erraustegiaren eraginari buruz landutako txostena aurkeztu zuen Biodonostiak maiatzean Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Emaitza kezkagarriak aurkitu dituzte GuraSOSek eta Anerreka Ingurumen Elkarteak. Horren harira, informazio bilera deitu dute azaroaren 29rako Sutegin.

"Usurbildar guztiei eragiten digun osasun egoera larri bati buruzko informazioa jasotzeko eta horren aurrean, herri bezala gure osasuna babesteko har ditzakegun neurri eta ekimenen inguruan hausnartzeko", informazio bilera deitu dute GuraSOSek eta Anerreka Ingurumen Elkarteak azaroaren 29rako arratsaldeko 19:00etan Sutegin.

Osasun egoera larri horri buruzko zenbait zertzelada eskaini dituzte hitzordu horren antolatzaileek plazaraturiko deialdian. "Foru Aldundiak bere web orrian Biodonostiak hiru urtetan burutu duen ikerketa baten emaitzaren berri ematen du. Ikerketa, erraustegiak osasunean eta ingurumenean izan dituen eraginei buruzkoa da. Ikerketa aztertu dugu eta errealitate beltz eta benetan kezkatzekoa aurkitu dugu", ohartarazi dute GuraSOSek eta Anerreka Ingurumen Elkarteak. "Ondorio txar nabarmenak" aurkitu dituztela berri eman dute, "batez ere Usurbilen, gure herrian eta beste lekuetan ere (Andoainen adibidez)".

### Hazkuntzarik ez, "Usurbilen izan ezik"

Biodonostiak landutako txostenean jasotako hitz hauek nabarmendu nahi izan dituzte Sutegiko informazio bilkuraren deitzaileek. "Biodonostiaren txostenak zera dio hitzez hitz: ez da alde esanguratsurik ikusten dioxinen, furanoen, dl-PCBen baturari eta dioxina motako konposatu guztien baturari dagokienez, Usurbilen izan ezik, non bataz besteko balioa 3.20 pgTEQ/g igo den (1.16 pgTEQ/g dioxinetan eta 2.04 pgTEQ/g dl-PCBetan), eta horrek %36,25eko gehikuntza dakar dioxinen kasuan eta % 63,75ekoa dl-PCBen kasuan".

Biodonostiaren ikerlan horren arabera, "154 gipuzkoarren odola aztertu dute; horien artean, 25 usurbildarrak ziren. Txostenak dio analizatutako usurbildar guztien odolean dioxinak, furanoak, PCBak, beruna eta kobre mailen hazkunde nabarmenak aurkitu dituztela". Horrez gain, "txostenean esaten da ere "Cu eta Pb-a nabarmen hazi" direla Usurbilen (Kobrea eta beruna). Eta oiloen arraultzetan ere toxiko arriskutsuen hazkunde eta metaketa aurkitu dute, Toxiko Watch fundazioak aurkitu zituen bezala".

**"IKERKETA AZTERTU DUGU ETA ERREALITATE BELTZ ETA BENETAN KEZKATZEKOA AURKITU DUGU"**

### Txostena osorik sarean

Lerrootan mintzagai dugun txostena maiatzean aurkeztu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Hiru urteetako ikerlanaren emaitzak biltzen ditu. "Ikerketa, erraustegiak osasunean eta ingurumenean izan dituen eraginei buruzkoa da. Batzar Nagusietan txostenaren aurkezpena Jesus Ibarluzeak, ikerketaren zuzendariak egin zuen, Ingurumen Diputatuaren eskutik. Agerpenean, Zubietako erraustegiak osasunean ondorio txar nabarmenik izan duenik ez dela atzeman esan zuten eta zehatzago aztertuta herritarren odolean eta pixan zein oiloen arraultzetan edo behi esnean pozoirik ez dutela aurkitu esan zuten. Horren arabera, ikerketarekin ez jarraitzea proposatu zuten".

Txostena osorik eskuratu eta irakur dezakezue gipuzkoa.eus atarian sartu eta pausoz pauso atal hauetan sartuta: "Ingurumena", "Ekonomia zirkularra" eta "Azpiegiturak" izenekoetan.

### Mediku baten parte hartzea

Testuinguru honetan, "egoeraren larritasuna ikusirik hausnarketa eta ekimen hau auzolanean, denen elkar-laguntzarekin egiteko" antolatu dute hilaren 29ko Sutegiko informazio bilera.

Hitzordu honen antolatzaileek aurreratu dutenez, "bertan mediku baten laguntzarekin orain arte argitaratu diren datu kezkagarrien berri ematearekin batera, horren aurrean herri bezala gure osasuna babesteko har ditzakegun neurri eta ekimenak azalduko dira".

# MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

### ALOKAIRUAN

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m$^2$ lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

## MOTORRA

### SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajean egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

## LANPOSTUAK

### LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase partikularrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

Andatza tabernan sukaldari bila gabiltza: 627 841 927

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrak emateko. 647742588

## LANPOSTUAK

### LAN ESKAERAK

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

## BESTELAKOAK

Ibilgailurako Reracro markako Zero.1 Bi haur aulki dauzkat salgai. 5 urte arte erabilgarriak, eta egoera onean. 125 euro bakoitzak. Harremanetarako: 653717186.

Giltza batzuk aurkitu nituen Troia beheko karretera eta trenbide artean. Udaltzainetan utzi ditut.

Hemengo aurtengo intxaurrak salgai. Telefono zenbakia: 943 671160.

Ikeako sehaska salgai, koltxoirik ez dauka (50 euro). Koltxoi eta ohe-jantziekin osatutako sehaska txikia (20 euro). Hamaka bere kaxa eta guzti (50 euro). Uppababy ahulkia salgai (100 euro). 652 765 583.

**IRAGARKIA JARTZEKO:**

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

# GUARDIAKO FARMAZIAK

**EGUNEZ**

| | |
|---|---|
| Osteguna, 21 | LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74 |
| Ostirala, 22 | GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08 |
| Larunbata, 23 | DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51 |
| Igandea, 24 | DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51 |
| Astelehena, 25 | ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49 |
| Asteartea, 26 | KNIESE JAUREGUI, LEIRE San Francisco, 1, Lasarte-Oria / 943 36 65 67 |
| Asteazkena, 27 | GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21 |
| Osteguna, 28 | DE ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52 |
| Ostirala, 29 | DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51 |
| Larunbata, 30 | DE ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52 |
| Igandea, 01 | DE ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52 |

**GAUEZ EGUNERO**

**(22:00etatik 09:00etara)**

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Plaza Mañe I I Flaquer, 6 Hernani 943 57 64 77

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

# TELEFONO INTERESGARRIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Gure Pakea Egoitza | 943 368 770 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Gure Elkartea Egoitza | 686 554 145 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Arrate Zahar Egoitza | 692 898 492 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 | Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Anbulategia | 943 362 013 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Amenabar botika | 943 376 076 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | Iturralde botika | 943 363 395 |
| Potxoenea | 943 371 999 | DYA | 943 464 622 |
| Kzgunea | 943 023 684 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Emergentziak | 112 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 | Genero-indarkeria, arreta | 016 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |

# HILDAKOAK

**Maria Dolores Mitxelena Eskudero**
Azaroaren 16an hil zen, 78 urterekin.

# Eskubaloia Oiardon

**Azaroak 23, larunbata**

- 09:30 Infantil neskak:
-Usurbil K.E.
-Urola E.K. Urzum
- 11:00 Kadete mutilak:
-Usurbil KE B
-Leizaran Txuria
- 16:00 Senior neskak:
-Urbil-Usurbil K.E.
-Ereintza Beissier
- 18:30 Senior mutilak:
-Saizar Usurbil K.E.
-Leizaran Ernio Inmobiliaria

# Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *erredakzioa@noaua.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Bulegoa**
Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

**Oharra:**
**Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTEGUNA 21

**USURBIL Zumarteren 40. urteurreneko ospakizuna**

Kalejira Usurbilgo kaleetan zehar, trikitixa-pandero eta haizezko zein perkusioko instrumentuekin eta ondoren talde instrumental desberdinen kontzertua Sutegin.
*18:00 Kalejira.*
*18:30 40. urtemugako lehen ospakizuna Mikel Laboa plazan.*
*19:00 Kontzertua.*

## LARUNBATA 23

**TXOKOALDE 'Arto ogia egiten ikasi' ikastaroa**

Idoia Artuzamunoaren eskutik.
*10:00/12:00 Txokoargin.*

**USURBIL '20.000 Especies de Abejas' filma**

Estibaliz Urresola Solagurenek zuzenduriko pelikula,
Antolatzailea: Erle Lagunak.
Laguntzailea: Udala.
*22:00 Sutegin.*

## IGANDEA 24

**USURBIL 23. Erle Eguna**

*Azoka, lehiaketak... Goiz partean frontoian.*

**USURBIL 'Usurbil 58' dokumentalaren aurkezpena**

Sarrera doan.
*17:30 Sutegin.*

Estibaliz Urresolaren filmak hiru Goya sari jaso zituen aurtengo otsailean.

## '20.000 especies de abejas' filma Sutegin ikusgai

Erle Egunaren bezperan, antolatzaileek Estibaliz Urresola Solagurenen film proiekzioa iragarri dute. Larunbat honetan ikus ahal izango da, gaueko 22:00etan Sutegin. Hiru Goya sari jaso zituen film honek eta erleek zein erlezainek bere tokia dute kontakizunean.

• Sinopsia: Cocók zortzi urte ditu. Ez dator bat gainontzekoek berarengandik espero dutenarekin, eta ez du ulertzen zergatik. Inguruko guztiek beti Aitor deitzen dioten arren, berak ez du bere burua izen horrekin identifikatzen. Anek, bere amak, oporrak aprobetxatuko ditu bere hiru seme-alabekin amaren etxera joateko. Bertan bere ama Lita eta izeko Lourdes erlezaina bizi dira. Uda honek bizitza aldatuko die.

• Sarrera: doan.

### Arto ogiari buruzko ikastaroa

Larunbat honetan, goizeko 10:00-12:00 artean, Txokoaldeko Txokoargi elkartearen egoitzan. Idoia Artuzamunoak bideratuko du eta gehienez hamabi lagunentzako lekua egongo da. Izena emateko, hona deitu 619 591 849 (16:00-18:00 artean). Prezioa: 10 euro.

### Sagar eta Sagardo Kultura

**Azaroak 28, osteguna**
• 18:00-20:00 "Bizio sagardogilearekin dastaketa komentatua", Aginagako Eliza Zaharrean.

**Izen-ematea:**
sagardoa@ni.eus
630 938 027.

### 'Soilik baietz da baietz' legea hizpide Emakumeon Etxean

2022ko abuztuan 'Solo Sí es Sí' bezala ezaguna egin den legea onartu zuen Madrilgo Diputatuen Kongresuak. Irene Montero zen orduko Berdintasun ministroa. Legeak hautsak harrotu zituen.

Irule abokatu taldeak 'Soilik baietz da baietz' legearen inguruan oinarritutako hitzaldia eskainiko du azaroaren 26an Emakumeon Etxean. 17:30ean hasiko da ekitaldia.

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
· komertzial instalazioak · beira bikoitza · segurtasun beirak · ispiluak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak · barandak · kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com
·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK
943 36 91 39

Indarkeria matxista ukatzea haren alde egitea da
Batu gaitezen geldiarazteko
2023. urtean, 6.513 salaketa jaso ziren Euskadin emakumeen aurkako indarkeriagatik.
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES
azaroak 25
Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna
900 840 111 24 h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU
EMAKUNDE
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
araba álava foru aldundia diputación foral
Bizkaia foru aldundia diputación foral
GIPUZKOA Foru Aldundia · Diputación Foral
EUDEL

SAGARDO KLUBA:
BIZIO SAGARDOEN DASTAKETA
AZAROAK 28, OSTEGUNA
18:00tan Aginagako Eliza Zaharrean
Sagardo berrien bideak: apardunak, fruituekin nahastutakoak...
- Zelai
- Pako
- Malandra
- Basoa
- Arangua
- Lili bat
Kostua: 10€
(Usurbildar eta Alkartasunako kideek 5€)
PLAZA MUGATUAK!
Usurbilgo Udala
ELIZA ZAHARRA
USURBIL
BIZI SAGARDOA
Sagarki
Sagardoaren Unibertsitatea
Alkartasuna Kooperatiba Atallu industrialdea 26, Usurbil 943 361 114 www.alkartasuna.eus alkartasuna@usurbil.com

# Eskuratu zure erosketa Bonua

ORDAINDU 20€ → ESKURATU 30€
10 €-ko deskontua!

BULTZA! EROSLE TXIKIEN IRAULTZA

azaroaren 19tik aurrera

Bezero bakoitzak gehienez 3 bonu erosi ahal izango ditu.

## Non erosi bonuak?

**PRESENTZIALKI**
Potxoenea Kultur Etxea

**Azaroak 19**
13:00-15:00 / 17:00-19:00

**Azaroak 20**
17:00-19:00

**Azaroak 21**
10:00-12:00

**ON LINE** gertuago.eus

**Azaroak 22:** 9:00etatik aurrera

Usurbilgo Udala gertu@go

Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

hurbilago